

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EPSILON EUSKADI SL-RI 2003 ETA 2012 URTEEN BITARTEAN EMANDAKO LAGUNTZA, DIRU-LAGUNTZA, MAILEGU ETA ABALEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, administrazio publikoek Epsilon Euskadi, SLri 2003 eta 2012 urteen bitartean emandako laguntza, diru-laguntza, mailegu eta abalen fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osoko kideen gehiengoarekin onetsi da, nahiz kideetako batek boto partikularra eta beste batek boto konkurrizalea egin duten.

Eskumenen ereduari jarraiki, Epaitegi honek Euskal Sektore Publikoak emandako laguntza, diru-laguntza eta beste soilik fiskaliza ditzake, guztira emandakoaren % 23 egiten dutenak. Horrek esan nahi du laguntza eta diru-laguntzen % 77 ez dela Txosten honetan fiskalizatu eta horiek Estatuko Administrazio Orokorrari dagozkionak dira.

Honenbestez, eskuratutako ondorioak ezinbestean Epsilon Euskadi, SLren zati batenak soilik dira, eta ez guztira jasotako laguntzenak. Epsilon Euskadi, SLrekiko administrazio publikoen gaineko fiskalizazioaren ikuspegi oso eta bateratua izateko, ezinbestekoa da dagokionak gainerako % 77aren fiskalizazioarekin osatzea honako txosten hau.

Euskal sektore Publikoko administrazio zein sozietateek Epsilon Euskadi, SLri emandako laguntzak fiskalizatzea izan da lanaren helburua, dela diru-laguntza, mailegu, hitzarmen, abal edo bestelako moldeen bitartez; horretarako, emakida egitean legea bete izana egiaztatu dugu, baita laguntza horiekin finantzatutako inbertsio edo gastuen eta laguntza hauek jasotzetik eratorritako gainerakoen justifikazioa ere.

Epsilon Euskadi SLk hainbat laguntza jaso ditu administrazio publikoetatik 2003-2012 aldian, diru-laguntza, aurrerakin itzulgarri, mailegu eta berfidantzamendu moldepean; txosten hau egin dugun datan likidazio fasean dago. Jasotako laguntzen laburpena ondotik zehaztuko dugu; horren xehapen eta analisisa txosteneko hainbat ataletan jaso da:

LAGUNTZA MOTA	Euroak milakotan			
	Emandakoa Ordaindua		Itzulera	
			Eskatua	Ordaintzeko
Itzuli beharreko aurrerakinak	763	763	763	308
Bermeak eta berfidantzamenduak	712	693	-	300
Diru-laguntzak	4.572	4.398	3.045	3.045
EAE GUZTIRA	6.047	5.854	3.808	3.653
Estatuko Administrazioaren maileguak.....	16.890	16.890	16.890	16.890
Estatuko Administrazioaren diru-laguntzak	3.500	1.500	1.500	1.500
ESTATUKO ADMINISTRAZIO GUZTIRA	20.390	18.390	18.390	18.390
GUZTIRA	26.437	24.244	22.198	22.043

Estatuko Administrazio Orokorrak emandako laguntzak ez ditu HKEEK fiskalizatu horretarako eskumenik ez duelako; dena dela, horiei buruzko informazioa eskuratu dugu, txostenean jaso dagoena.

Berebat, txostenean izenpetutako babesletza kontratu pribatuak eta lankidetzak hitzarmenak aztertu dira; baita, EJRen mendeko sozietate publikoen jabetzakoak ziren hainbat aretoren lagapen doakoa ere.

Hona hemen HKEEK eskuratu dituen ondorio nagusiak:

EAE-REN ADMINISTRAZIO OROKORRA

1. Gaitek, Nets eta Innotek programen baitan emandako laguntzei dagokionez, guztira 1,5 milioi euroren zenbatekoan, txostenak dio Gaitek 2009 eta Nets 2009 eta 2010 programetan emandako laguntzetatik ordaindutako aurrerakinetan ez direla dagozkion bermeak eskatu (698/1991 Dekretuaren 3. artikulua).
2. Txosten hau idatzi dugun datan eta oker jasotako zenbatekoak itzultzeko obligazioari dagokionez, txostenak dio Gauzatu programatik itzulgarria den aurrerakinetik 308.448 euroren zenbatekoa dagoela itzultzeko. Proiektu Estrategikoen programan emandako diru-laguntzari dagokionez, EJK ez-betetze espedientea abiarazi du, enpleguari dagozkion gutxienekoak ez betetzeagatik eta oker jasotako diru kopurua itzultzeko obligazioa eskatu du, 3 milioi euro, gehi legezko interesak, guztira 313.816 euro.

ARABAKO TEKNOLOGIA PARKEA, SA

2012ko abenduaren 20an HKEEK “Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko eta Sozietate Publikoen 2009ko Kontuen” fiskalizazio txostena onartu zuen eta 2013ko abenduaren 18ko Eusko Legebiltzarraren Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari aurkeztu zitzaion. Txosten horrek III. atalean “Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” III.4.2 idazpurua barne hartzen du, “ATP, SAREN ondare eragiketak, eta honako hau dio:

“2008ko urtarrilaren 11n sozietateak lursail bat saldu zion 2,7 milioi euroan Epsilon Euskadi, SLri, hipoteka bidez bermatutako ordainketa geroratua zuena. Gerora, 2009ko urtarrilaren 14an lursailaren erosle zen Epsilon Euskadi, SLk bi finantza erakunderekin instalakuntzak finantzatzeko bi hipoteka mailegu izenpetu zituen, 8 milioi euroena bakoitza; enpresak bi finantza erakundeekin hipoteka maila hauen alde lagatzea adostu zuen eta erakundeek hipoteka exekutatzeko gertatuko balitz, enkantera joan eta gutxieneko 14,6 milioi euroren eta gehieneko 22,5 milioi euroren artean ezarritako prezioaren aldeko eskaintza egiteko konpromisoa hartu zuen, aditu hirugarrenek jaulkitako balorazio txostenen arabera finkatuko dena”.

HKEEK dio ezin egiaztatu izan duela agiri euskarrien bitartez eragiketa hau egiteko zedin arrazoi izan zituzten.

2013ko irailaren 27an, ATP, SAK Epsilon Euskadi, SLren konkurtso-administratzaileengana jo zuen sozietatearen jabetzakoak ziren eraikina eta instalakuntzak erosteko eskaintza ezeztatzeko, guztira 19,6 milioi euroren

prezioan, era honetan xehatua: 19 milioi euro eraikinarenak eta 0,6 milioi euro proposamenaren eranskinean jasotako ondasun higigarrienak, hau da, Epsilon Euskadi SLren ondasun higigarri guztiak, instalakuntzak eta tresneria.

Vitoria-Gasteizko Merkataritzako 1 zenbakiko Auzitegiaren 2013ko abenduaren 3ko 279/2013 Auto bidez Epsilon Euskadi SLren konkurtso-administrazioari baimena ematen zaio konkurtsoko aktibo guztiak osotasunean saltzeko, 2013ko irailaren 27an PTA, SAK aurkeztutako eskaintzaren arabera; txosten hau idatzi dugun datan salmenta gauzatzeko dago.

Auto horren aurka enpresa bateak 2014ko urtarrilean apelazio errekurtsua aurkeztu du makineriaren esleipenari dagokionez.

ATP, SAren urteko kontuen 2012ko abenduaren 31ko auditoria txostenak horien gaineko iritzi garbia eman zuen iritziaren atalean. Berebat, hirugarren atalean txostenak dio "Sozietateak kobratzeko duen kontu bat dago, 17.850 mila euroena, eta aditu independente batek egindako tasazio gaurkotua, lursailari (zorua) 2.928 mila euroren balioa eta bertan egindako eraikuntzei 21.134 mila euroren balioa aitortzen diena ; horiek guztiak 2012ko ekitaldi itxieran erregistratutako kontularitzako balio garbiak baino handiagoak dira. Honenbestez, Sozietatearen Administrazioaren iritzira, kobratzeko kontu horien berreskuragarritasuna ziurtatua dago aktiboek duten balioekin eta bermea epe laburrean egikaritu da.

Txosten hau idatzi dugun datan, HKEEk azpimarratu du ez duela eragiketa hauen azken emaitzari buruzko iritzia ematea bideratuko duen datu objektiborik.